

## **KEINU-LEIHOAK 2019**

Etxe zahar bat. Leihoak. Kontraleihoak gibelean. Norbanakoak barreanean. Normalean ezkutuan daudenak. Batzuetan agertzen direnak.

Izaki basati bat, aktore bat, eta arrantzale bat agertuko zaizkigu aurtengoan. Bakarkako hiru lan "Keinu-Leihoak" jardunaldietan. Bi gazteren proposamen pertsonala, eta pertsona gazteenei zuzendutako hirugarren bat. Antzerkizaletasuna sustatu eta berritzeko asmoz. Hiru leiho, hiru mundu ... edo gehiago.

### **SATIRO – Xanti Agirrezabala**

Satiroa: Sexu-instintu gordinenak irudikatzen dituen izakia. Gizonezko lizun, likits,zantar eta haragikoia. Basoetako jeinua, erdi gizona erdi animalia, giza enborra eta aurpegia, akerzangoak, adarrak eta isatsa zituena. Ardoa edaten, jostatzen eta dantzan ibiltzen zena.

***Elizak dio gorputza erruduna da***

***Zientziak dio gorputza makina bat da***

***Iragarkiak dio gorputza negozioa da***

***Gorputzak dio: ni FESTA bat naiz.***

*Eduardo Galeano*

*(Abenduak 6, 18:00, Harriondoa)*

### **PANPINA – Kamikaz kolektiboa**

Antzezlan honetan gai sakonak topatuko ditu ikusleak,umorea eta performance kutsuko aktore lan klasikoaz lagunduta: noiz bilakatzen da norbera panpin eguneroko bizitzan? Zer pasatzen da panpin baten burutik? Noiz behar dugu begiratu gaitzaten, eta zergatik? Emakume oro da panpina? Besteen begiradak egiten gaitu panpin?

*Panpina* oholtza gainean Erika Rooibos aktorearen argilunak erakutsiko dituen lana da, baina era berean, edozein pertsonak izan dezakeen onarpen beharraren ertzak modu intimo bezain probokatzailean agerian jarriko dituen.

*(Abenduak 8, 18:00, Harriondoa)*

### **URETAKO IPUINAK – Eneritz Artetxe**

Behin, itsasoaren erdian txipiroiak arrantzatzen nengoela, olatu txiki batek plastikozko botila bat ekarri zuen txalupa ondora. Ez da gauza arraroa, egunero batzen dut plastiko mordoia itsasotik zoritxarrez. Baina oraingo honetan botila hartzerakoan, barruan paper mordoia zegoela konturatu nintzen! Berehala ekin nion botila irekitzeari eta paperek zekartena irakurtzerakoan, ipuin mordoia zela konturatu nintzen... Uretako ipuinak ziren!

*(Abenduak 15, 17:30 Arrano, 4-9 urte)*